ARIKETAK

Irakurri eta egin lasai. Ez da presarik!

1. LOTU

Lotu hitza eta esanahia. Idatzi letra egokia.

1. Indarra	A. Mugitu nahi dugun pisua.
2. Euste-puntua	B. Guk egiten dugun indarra.
3. Erresistentzia	C. Palankaren euskarria.

2. AUKERATU

Markatu erantzun zuzena (X).

1. Lehen mailako palankan, zer dago erdian?
■ Indarra ■ Euste-puntua ■ Erresistentzia

2. Bigarren mailako palankan, zer dago erdian?
■ Indarra ■ Euste-puntua ■ Erresistentzia

3. Hirugarren mailako palankan, zer dago erdian?
■ Indarra ■ Euste-puntua ■ Erresistentzia

3. SAILKATU

Idatzi objektu bakoitza dagokion zutabean.

Guraizeak • Eskorga • Pintzak • Intxaur-hauskailua • Balantza • Gure besoa

1. MAILAKOA	2. MAILAKOA	3. MAILAKOA

4. EGIA ALA GEZURRA?

Idatzi E (egia) edo G (gezurra).

1. Palankak hiru elementu ditu. _____

2. Lehen mailako palankan indarra dago erdian. _____

3. Bigarren mailako palankan pisua dago erdian. _____

4. Hirugarren mailako palankan indarra dago erdian. _____

5. Guraizeak lehen mailako palankak dira. _____

LIVEWORKSHEETS